

# BERRIGARA

100. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1997, azaroak 21

Etorkizunari  
begira

# Dendari txikiak

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



# MULTIOPTICAS

## sei hilabete tan



### begi bistatik kenduko diguzu

Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaratu barik.



LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en "TRAVEL CLUB" PROGRAMAKO PUNTUAK



bi kutxatila  
lentilekin  
eta beste bi  
soluzio bakarrarekin  
**15.000**  
pezetagatik  
bakarrik



eta erloju bat opari

### MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Juan Carlos Guerra, 1 J. M. Barandiaran Enp.  
Tel. 76 15 75 Tel. 79 29 95 Tel. 88 99 88  
BERGARA ARRASATE ORDIZIA

### MULTIOPTICAS EIBAR


Bidebarrieta, 2  
Tel. 20 05 22  
EIBAR

### MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7  
Tel. 51 78 11  
ERRETERIA

# ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korronte alferno eta  
zuzeneko makina  
elektrikoen eta abiada  
haundiko induzituen  
konponketa eta  
bobinaketa



Antigua auzoa, 3 Telefonoa: (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA



**FULL MONTY**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.


Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**EL OTRO LADO DE LA VIDA**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

▼▼ **Martin Linazisoro** zenaren oroimenezko zeramika erakusketa zabalduko da Kultur Etxeko erakusaretoan gaur, ostirala, 19:30etan. Simon Arrieta Zeramika Taldeak eskeini dion erakusketa honetan Linazisorok bere bizitzan zehar egindako eskulturak ikusi ahal izango dira. Erakusketa azaroaren 30era arte izango da zabalik, astebarruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**Zinea**

▼▼ **Peter Cattaneo** zuzendariaren filme hau karteldegiko arrakastatsuenetakoa dugu, kritika zein publikoaren aldetik oso harrera ona izan baitu. Langabezian dagoen lagun talde bat, konplexuak alde batera laga eta Ingalaterrako klubetan *strip-tease show*ak eskeintzen hasiko da, ustekabeko arrakastarekin gainera. **Robert Carlyle** (*Trainspotting*) aktorearekin.

▼▼ **Billy Bob Thornton** aktoreak idatzi, zuzendu eta protagonizatutako filme honek iazko *Oskarretan* bi izendapen jaso zituen. Bere ama eta honen maitalea hil dituen *Karl Childers* (**Thornton**) gutxitu mentalaren istorioa kontatzen zaigu. Hogeita bost urte psikiatriko baten eman ondoren, *Childers*ek gizarteratzeko prozesuari ekingo dio...

**Deiak**

▼ **1960**ko kintoen (gizon zein emakumeak) anaiarteko eguna bihar, hilak 22. Santa Marinaran meza 19:00etan eta ondoren afaria Antxonin. Argibideak 76 23 94 (Pedro Egaña) telefonoan.

▼ **1957**an jaiotakoan afaria hilaren 29an Zumelaga jatetxean. Izen-ematea Intxorta tabernan.

▼ **1945**ean jaiotakoan afaria hilaren 29an Antxonin.

▼ **1944**an jaiotakoan afaria hilaren 29an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea: 76 42 08 (Arantxa Alberdi).

▼ **Benito Cantero**ren argazki erakusketa Pol-Poleko aretoan.

▼ **Joxean Bilbao**ren oleo erakusketa Andoaingo Ayerbe aretoan abenduaren 1era arte.

**Ogia**

▼ **Domeka 23:** Konde.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 21:** Puy.
- ▼ **Zapatua 22:** Guallar.
- ▼ **Domeka 23:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 24:** Estella.
- ▼ **Martitzena 25:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 26:** Camacho.
- ▼ **Eguena 27:** Puy.

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra eta konejoo  
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# Udal Musika Banda

## Santa Zeziliako kontzertua domekan 12:30etan

**Udal** Musika Bandak Santa Zezilia eguna ospatuko du domekan. Beraz, bihar zapatuko Santa Zezilia eguneko musika ekitaldiak domekan izango dira. Goizeko 10:00etan hildako musikarien oroimenezko meza izango da igandean Mariaren Lagundiko kaperan eta jarraian, 10:30etan, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen Musika Bandak kalejira egingo du ohizko ibilbidea eginez. Bergara K.E.ko futbol talde nagusia sasoi onean dagoela aprobetxatuz, Miguel Gonzalez Bastidak aspaldi klub deportiboarentzat konposatutako "Campeones" martxa joko dute.

Eguerdiko 12:30etan, berriz, Udal Bandak Santa Zeziliako kontzertua eskekiniko du Novedades aretoan. Programako egitaraua honako hau izango da: "Entre azahares" (kontzertuko pasodoblea, Alfredo Gonzalez Chirlaque-rena), "La italiana en Argel" (obertura, Giacomo Rossini-rena), "La gran via" (zarzuelako selekzioa, Chueca eta Valverde konpositoreena), "Evita" filmeko soinu banda (Andrew Lloyd Webber) eta,



Udal Musika Bandaren kontzertuaren ondoren, omenaldia eskainiko zaie bandako hiru kideri.

azkenik, "Hooray for Hollywood" (Richard A. Whiting).

### Evitaren estreinua

Kontzertuko nobederik aipagarriena Maddonnak eta Antonio Banderas aktoreek protagonizatutako "Evita" filmeko soinu bandaren estreinua izango da. Alfredo Gonza-

lez Chirlaque zuzendariren hitzetan, "estatu mailako estreinutzat jo daiteke igandekoa, izan ere partiturak orain gutxi eskuratu baititugu eta lan hau interpretatuko duen estatuko lehenbiziko taldea izango gara beharbada. Lehen ere Lloyd Webber-en konposizioarekin musikal ospetsu bat egin zen, baina filmerako

musikan, orkestazio alde-tik, badira aldaketa batzuk. Domekan filmeko pieza nagusien selekzio bat joko dugu". Kontzerturako sarrerak 200 pezetan salduko dira.

Kontzertuaren ondoren, Udal Musika Bandako kideek bazkaria egingo dute Azpeitxi jatetxean. Bazkalostean, taldea lagako duten Francisco Garcia, Luchi Garcia eta Ainhoa Amasorrain klarinete-joleei Musika Bandaren insignia emango zaie. Guztira, 80 bat lagun bilduko dira bazkarira.

## Udal Musika Bandak "Evita" filmearen soinu banda estreinatuko du domekan

**Kizkur**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

## IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



## Asmaizu

Ondorengo lerrootan Akulu AEK Euskal-tegikook "Asmaizu" jokuko balantze txiki bat egin nahi dugu.

Hasteko, aitortu behar dugu ez genuela inondik inora horrelako erantzuna espero. Horrek zer pentsatu eman digu, eta laburtuz:

a) Euskararen inguruko interesa eta kezka da.

b) Euskaltzaindiaren arauen ezagutza orokorrean eskasa da, eta hauek zabaltzeko egun erabiltzen ditugun bideak ez dira nahikoak.

c) Era ludiko batez, ikasteko denok gau- de prest.

Honetaz aparte, puntu batzuk argitu be- harra dago:

1- Jokuaren gaia euskara batua zen, eta gure abiapuntua Euskaltzaindiak hartutako erabakiak. Gustokoak izan edo ez izan, ados egon ala ez, edota arau bakoitzari iriz- ten dioguna beste kontu bat da.

2- "c" hizkia euskal alfabetoaren hiruga- rrena da (17. araua, 94/XI/25)

Bukatzeko, eskertu behar diegu joku hau bultzatu duten guztiei: Elgetako Haizea, Osintxuko Euskalduna, Angiozarko Gazte- tea, Antzuolako Larrea eta Bergarako Zu- haizti, Etxagi, Korta-Zar, Pol-Pol, Infernokua eta Arranoko tabernariei; eta oro har koadri- la ezberdinetan lagunak zirikatzen eta ani- matzen aritu den jendeari. Eta, orohar, parte hartu duzuen guztioi.

Zorionak irabazleoi eta gogoratu: euskararik gabe akabo Euskal Herria.

## AKULU AEK EUSKALTEGIA

### Gauzak zehaztu nahian

Iñigo Ramirez de Ocarizek joan zen lar- runbatean, azaroak 15, Loiola Irratian egin- dako deklarazioei puntualizazioa egin nahi diet eta herritarrei informazio zehatzagoa eman.

Iñigok han esan zuenez, Akiñabeiko errota udalarena dela ulertzen da (bat eta bi baino gehiago etorri zaizkit kezka edo inte- rrogazio horrekin) eta konpontze lanetan da- biltzala, eta hori ez da horrela.

Orain dela bost urte, jaustera zihoala ikusi nuenean pena hartu nuen eta orduan bururatu zitzaidan konpontzea denbora li- bretan, izan ere gure ondarea pikutara doa- la ikusita kezkatuta nenbilen eta hor ikusi nuen aukera bat zuzenean zerbait egiteko eta ez bakarrik teorikoki.

Neuk erosi eta neuk jaso dut etxe osoa (familiakoen eta lagun batzuen laguntzare- kin), eta diru dena nire poltsikotik irten da.

Iaz udaletxetik deitu zidaten, esanez on- darea berreskuratzen dabiltzanentzako diru- laguntza batzuk ematea erabaki zutela. Prestatu nuen informea egindakoarekin eta egiteko neukanarekin eta eskutitz baten bi- tartez esan zidaten dirulaguntzaren parte bat niri ematea onartu zutela, baina oraindik

ez zait xoxik ere iritsi.

"Bakoitzari berea, Jainkoaren legea" esaten den bezala, batzuentzat eroa eta beste batzuentzat heroia ni neu izatea nahi dut, Akiñabeiko errotaren kontuetan behin- tzat, eta ez beste inor.

JOSE MARIA ITURBE

### Fax zenbaki berria

BERRIGARA eta JARDUNeko fax zenbakia aldatu egin dugu.

Mezu, ohar, idatzi eta abarrak faxez gurera bidali nahi izanez gero,

**76 29 77**

zenbakia markatu beharko duzu aurrerantzean. Barkatu eragozpenak.

## Tiira biraka



**Oihulari Klown Pol-Polen**


Datorren egunean, azaroak 27, gaueko hamarretan, Oihulari Klown taldeko Ray Bueno eta Maite Larreak "Eleminez" izeneko ipuin kontaketa saioa eskainiko dute. Oihulari Klown taldekoak "Hitzez hitz kontatutako orduen topaketak" antolatu dituzte urri, azaro eta abenduan zehar. Euskal Herrian zehar hainbat emanaldi antolatzen dituzte eta Bergaran hilean behin izaten dira. Batzuetan Oihulari Klownekoek hartzen dute parte eta beste batzuetan beste ipuin kontalari batzuek.

**Torunsak lantegi berria eraikiko du Hendaian**

**Torunsa S.A.** enpresa bergararrak auto industriarako mekanika lantegia jarriko du Hendaian. Lantegi berria LAC Pays Basque deituko da eta hurrengo hiru urteetan 30 lanpostu sortuko ditu.

Estatu Frantziarreko merkatua Torunsaren bigarren bezero nagusia da eta lantegi berriarekin frantziar merkatua zerbitzatu nahi da. Gainera Bergarako lantegia txiki-gi geratu ei da produkzio guztia aurrera eramateko eta, ondorioz, Hendaian lantegi berria jarriko dira.

Fabrika berriak 100 miloi PTako kapitala izango du eta %65a Torunsaren esku izango da. Hendaian lantegian auto industriarako behar diren materialak egingo dituzte. Lan horiek egiteko prensa hidrauliko bat, hiru produkzio gune eta fabrikazio lerro bat jarriko dute. Lantegiak 30 langile beharko ditu, baina kopuru horretara 3 urte barru helduko dira. Lehenengo urtean, fabrika eraikitzearekin batera, 10 langile hasiko dira lanean; bigarren fase batean beste hamar eta, azkenengo urtean, aurreikusitako kopurura helduko dira.



San Juangoaz gain, beste lantegi berri bat izango du Torunsak.

**Iparraldeko instituzioen laguntza**

Torunsa lantegia Unzurrunzaga anaiek 1941. urtean sortu zuten eta gaur egun 130 langile inguru ditu Bergarako lantegian. Hasiera batean auto industriarako torlojuak egiten hasi ziren, baina gaur egun beste lan batzuk ere egiten dituzte: etxegintza eta nekazaritza arloetarako lan egiten dute.

Enpresa bergararraren bezeroen %50a penintsulakoa da, %40a Frantzia-

koa eta gainontzeko %10a Europako beste herrialde batzuetakoa.

Azkenengo urteetan etekinek nabarmen egin dute gora: 1992tik 1995ra bitartean irabaziak ia bikoiztu egin ziren. Bestalde, joan zen urtean Torunsak ISO 9002 kalitate garantia eskuratu zuen.

Hendaian lantegia eraiki ahal izateko Iparraldeko erakunde publikoen laguntza izan dute: Hendajako Udala, Pauko Kontseilu Nagusia eta Akitaniako Eskualde Kontseilua besteak beste.

**HILDAKOAK**

- Joakin Arrizaga Beristain**  
Azaroak 14, 85 urte.
- Rufina Agirre Bengoa**  
Azaroak 17, 90 urte.
- Pedro Sevilano Vicente**  
Azaroak 18, 50 urte.
- Jose Luis Calvo Saenz**  
Azaroak 18, 48 urte.
- Julian Portu Beain**  
Azaroak 18, 69 urte.

**JAIOTAKOAK**

- Goizaldi Arozena Gonzalez**  
Azaroak 6.
- Itsaso Gantxegi Mazorriaga**  
Azaroak 7.
- Mikel Sanchez Karasatorre**  
Azaroak 17.
- Martin Telleria Santorcuato**  
Azaroak 17.
- Eneritz Arizmendiarieta Elortza**  
Azaroak 18.

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**


ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

**Jose R. Fernandez**

PSIKOLOGIA KONDUKTAL GABINETEA  
Antsietatea, depresioa,  
ikasketa eta kondukta arazoak eta  
informe perizialak.

Ramon Maria Lili 2 behea  
Tf. 76 59 39



Iniziar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

### Kapirixoren bilerak datorren astean

Kapirixok, Deba Garaiko ondarea zaintzen duen elkarteak, urteko batzar orokorra egingo du datorren egunean, hilak 27, arratsaldeko zazpitan UNEDen. Ondoren, 20:00etan, Gerardo Elortzak "Deba Garaian azkenengo 20 urteetan galdu eta berreskuratu den ondareari" buruz berba egingo du. Bestalde, astelehenean, 19:00etan, Bergarako Kapirixoko kideek bilera egingo dute UNEDen batzar orokorra prestatzeko.

### Akulu euskaltegiaren azken zozketa


Akulu AEK euskaltegiak antolatzen duen Asmaizu lehiaketaren irabazle nagusia Pedro Zafra izan da. Joan zen hil osoan zehar jokaturako lehiaketa 953 lagunek hartu zuten parte eta horietatik 630 lagunek oker erantzun zuten galderaren bat; gainontzeko 323ek erantzun guztiak zuzen jarri zituzten.

### Gaztetxearen aldeko pintada plazan

Joan zen zapatuan Gaztetxea itxi zutela 4 urte betetzen zirela eta, pintada bat egin zuen gazte talde batek San Martin plazan. Pintada plazaren erdi-erdian egin zuten eta okupazioaren sinboloa da. Gobernu Batzordeak ekintza "publikoki salatu" du.

### Opel Corsa baten zozketa

Begarako dendari, hostalari eta zerbitzuen elkarteak, Opel Corsa bat zozketatuko du Errege bezperako Niñoko loteriarekin batera. Bedelkarreko dendetan erosketak egiten dituztenen artean txartelak banatuko dira.



Gisasola burdinaki denda, orain arteko lehiaketetan sarituetako bat.

## Eskaparate lehiaketarako izena emateko epea hil bukaerara arte

*60.000 pezetako saria eramango du irabazleak*

Begarako Udalak antolatzen duen eskaparate lehiaketa parte hartzeko epea zabalik dago datorren azaroaren 29ra arte. Bertan herriko dendariak parte hartu ahal izango dute eta izena emateko Errotalde kultur etxera joan behar da. Eskaparateak abenduaren 14rako egon beharko dira prest eta erakustaldiak 1998ko urtarrilaren 2rarte iraungo du. Era berean, eskaparateak apaintzeko, gorostia, goroldio, erratz edota izei naturalik ezin izango da erabili.

Saria ematerako orduan epai mahaia eskaparateen imajazioa, orijinaltasuna, iragarpenaren eraginkortasuna eta kalitatea izango ditu kontutan. Eskaparatea apaintzeko denda horretan saltzen diren produktuak agertu beharko dira eta

Udalak banatuko dien partehartzaile-agiria ere ikusgai egon beharko da. Sarietarako, irabazleak 60.000 PTA irabaziko ditu; bigarrenak 30.000 PTA eta hirugarrenak 15.000 PTA. Bedelkarrek euren bezereoen artean bozketa antolatuko du eta bozketaren irabazleak ere sari berezia jasoko du.

Epaimahaiaren lana errazteko parte hartzaileei eskatuko zaie eskaparateak lanegunetan dendak ixteko ordura arte argizatuta edukitzea eta jaiegun eta bezperetan, berriz, 21:00ak arte. Aurtengoa 7. edizioa da eta joan zen urtean Casa Agirrek irabazi zuen lehen saria -bai Udalak emandakoa eta baita Bedelkarrek ematen duena ere-. Guztira, 23 denda aurkeztu ziren lehiaketa eta aurtengo kopuru hori gehitzea espero da.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55



## Gabonetako argi apaingarriak jartzen hasiko dira egun hauetan

*la 3 milioi pezeta gastatuko dira herriko kaleak apaintzeko*

Gabonetarako hilabete geratzen denean, Udalak herriaren erdialdeko kaleetan eta lau sarreretan argiak jarriko ditu aurten ere. Gabonetako argiak San Martin plazan, Bidekurutzetan, San Pedron, Arruriagan eta Barrenkalean eta herriko lau sarreretan jarriko dira; horrez gain, Elosu, Angiozar, Ubera, Osintxu eta Elorregin ere bai. Aurrekontua 2.750.000 PTAkoa da eta abenduaren 13tik urtarrilaren 7ra bitartean piztuko dira.

Espoloiko dendariak euren auzoan ere argiak jartzeko eskaera egin diote Udalari, baina ez dituztela jarriko erantzun diete Udaletik dendariei. Halere, eurek ordainduta apaingarriak jartzen badituzte, argindarra eta instalazioa Udalaren kontura joango direla esan diete.

*"Auzo guztietan ezin ditugu jarri apaingarriak, baina dendariak euren kontura apaingarriak jartzera animatuko nituzke, argindarra eta instalazioa Udalaren kontura joango baitira"* adierazi digu Luis Abajo Kultur zinegotziak.

Berehala hasiko dira Gabonetako argi apaingarriak jartzeko lanetan eta Udalak argien instalazioak sortzen dituen eragozpenak barkatzeko eta lanak egingo dituztenei gauzak errazteko eskatu die bergararrei. Iazko esperientzia nahiko kaskarra izan ei zen, argitxo ugari apurtu zituztelako. *"Kale erdiko bonbilak bi aldiz aldatu behar izan genituen eta guztira 300.000 PTA gehiago ordaindu behar izan genuen, ganberroek egindako apurketak konpontzeko"* adierazi digu Abajok.



Gabonetako argiak abenduaren 13tik urtarrilaren 7ra arte piztuko dira gauzez.

### Kantaldia Gartzela Zaharrean

Domeka honetan 18:30etan kantaldia izango da Gartzela Zaharrean. Bertan, Edurne eta Josune bikoteak eta Aitzol Mujikak hartuko dute parte. Gartzelako karneta dutenentzat doan izango da eta gainontzekoek 100 PTA ordaindu beharko dute.

### San Joxepekoak Lizarrara

San Joxepe jubilatuen elkarteak Lizarra ezagutzeko irteera antolatu du hil honen 30erako. Irteera goizeko 09:00etan izango da eta Abarzuzan hamarretakoa egingo dute. Ondoren, Lizarrako feria bisitatu eta herri horretako kanpingean bazkaria egingo dute. Irteera 2.300 PTA kostako da eta izena Bergarako Gizarte Zentruan eman beharko da.

### "San Martinen Estanpa" bideoa salgai

Etxepare liburu eta disko dendan, Lazkano oinetako dendan eta Musika Eskolan erosi daiteke 2.000 PTAren truke "San Martinen Estanpa" ikuskizunean hartutako irudiekin egindako bideoa.

### Arizmendi topaketak Arrasaten

Gizabide Fundazioak antolatuta, Arizmendi Topaketak izango dira datorren astean Arrasateko Amaia Antzokian. Astelehenean, hilak 24, Pedro Hernandez Tenerifeko Universidad de la Lagunako zuzendariak egingo du berba; eguastenean, berriz, Jon Sarasua izango da hizlari eta eguenean, azkenik, Antonio Cancelo, MCCko presidentea. Hitzaldi guztiak 18:45etan hasiko dira.

## NICEBOYS kabareta

Gizonezkoen strlp-teasea emakumeentzako bakarrik

Santa Luzia bezperan, jostunen eguna



ABENDUAREN 12an, OSTIRALA, JAM ARETOAN. Ateak 24:00etan zabalduko dira

Sarrera + kontsumizioa 1.500 PTA aurrez erosiz gero, 1.800 PTA takilan.

*laz bero, aurten gori-gori...*



# Dendari txikien indarra

## Superfizie haundien aurrean

**Azken urteotan superfizie haundiekin emandako boomak zalantzan jarri du herrietako komertzio txikien etorkizuna. Gero eta horrelako zentru komertzial gehiago dago Euskal Herrian eta gure bailarak ere igarri ditu honetako horren ondorioak. Erosketa ohiturak aldatzen diren heinean, herrietako bizitza komertzialak behera egin du. Horren aurrean, komertziante txikiek euren tokia aldarrikatzen dute.**

**A**zken hamarkadan zentru komertzial haundi dexente zabaldu dira gure inguruan eta horrek kezka sortu du herrietako komertziante txikien artean. Bilbo inguruan, Donostialdean edota gure bailaran superfizie haundiak irekitzeak kasu askotan komertziante txikien elkarrekin sorrera ekarri du atzetik. Erosketa ohiturak erabat aldatu dira zentru komertzial haundien etorrerarekin eta jendeak era guztietako erosketak egiteko edota aisialdia igarotzeko bertara joateko ohitura hartu du. Komertziante txikiak kezkatu azaltzen dira eta, Europako hainbat herrialdetan gertatu den moduan, egoera horrek herriaren eguneroko bizitzan izan ditzakeen ondorio larriak aurreikusten dituzte.



Superfizie haundien konpetentziaren aurrean, Iñaki Acedok produktuen kalitateari lehentasuna ematen dio.

Susana Iza Biltokiko arduradunaren hitzetan, *“egoera larria da komertziante txikiontzat. Jende-ari gauza modernoak gus-tatzen zaizkio eta itxura orain hori dago modan, borrelako superfizie haundietara joatea. Erosketa zentru komertzial horietan egiten ditu jendeak, baina buzoie-tan banatzen duten pu-*

*blizitatea aztertutik pre-zioetan ez dago horren-besteko alde; elektragai-luen kasuan, adibidez, urte guztian herriko ko-mertzioetan izaten ditu-gun prezioak han nobe-dade bezala aurkezten dituzte. Zer esan nahi du horrek? Komertziante txi-kiok hobeto goazela, ur-tean zehar prezio hobeak dauzkagula. Eta gero*

*atentzioaren kontua da-go. Gure bezeroei ez die-gu bideoa besapean em-aten, superfizie haundie-tan gertatzen den mo-duan. Gizon bat joaten da bezeroaren etxera, instalakuntza egin eta bideoari buruzko azalpe-nak ematen dizkio. Su-perfizie haundietan bi-deoa karroan eramán, ordaindu eta gero hor*

**“Gehiegizkoa izan da superfizie haundiekin gertatutakoa, horiek zabaltzea modernitatearen adierazle balitz moduan...” SUSANA IZA**

## “Elikagaien prezioetan ezin dugu konpetitu; produktuen kalitatea edo bezeroei eskeintzen zaien tratua zaintzen ditugu” MARIAJE PEREZ

konpon, bakoitzak asma dezala borren funtzionamendua. Eta jendeak ez ditu gauza horiek guztiak baloratzen. Komertzioek, gainera, sekulako bizitza ematen diote herriari; pentsa, Bidekurutzetatik Barrenkale amaitu bitartean edota Frontoi inguruan komertziorik izango ez baltz, inguru hori guztia komertzioen argi barik oso triste geratuko litzateke”.

### Mentalitate aldaketa

Agintari politikoek ez dute arazoa behar bezala aztertu Susana Izaren ustetan; “Jaurlaritzak eta udalek ez diote arazoari behar duen tratamendua eman edo, beharbada, ez dute ezer jakin nahi... Eta komertziantek txikiok egiten ari garen esfortzua izugarria da. Dagoeneko 43 urte daramatzagu dendarekin eta bezero fijoek eskertzen egiten dugu aurrera. Beste herrialde batzuetan superfiziek haundiekin enpresa eta komertzio txikiak pikutara joango zirela argi ikusi zuten eta guztiz debekatuta daude... Euskal Herrian zentru komertzialekin gertatu dena gehiegizkoa izan da. Beharbada gobernuak pentsatuko du zentru horiek zabaltzea modernitatearen adierazle dela...”.

Horien aurrean Bergarako dendak tratua edota herrian dagoen aukera zabala aldarrikatzen du Izak; “hemen badakigu bezeroak ondo tratatzen,

eta beste gauza bat; superfiziek haundiak baino lanpostu gehiago sortzen dira komertzio txikietan eta askoz baldintza hobean gainera”. Komertziantek kezkatuta daude; “etorkizuna ez dut oso garbi ikusten. Jendeak oraingo mentalitatearekin jarraituz gero, txikiok ez daukagu zer egirik. Lehen izerdiek pisatzen laguntzen gaituzte, baina agintariek komertzio txikiak ematen duten aberastasuna ondo baloratu beharra daukate”.

### Tratu berezia

Superfizie haundiek, beharbada, gehien kalte-tutu duten sektorea elikagaiena izan da. Espe Arriaran eta Mariaje Perez Aldi-Irala supermerkatuan ari dira lanean eta zentru komertzial haun-

diekin konpetitzeko euren ezintasuna aitortzen dute; “prezioetan eta aukeran ezin dugu konpetitu, hori argi dago, baina beste gauza batzuei ematen diegu lehentasuna, produktuen kalitateari edota bezeroei eskeintzen zaien tratuari esate baterako. Normalean superfiziek haundiak zabaldu eta lehen bi hilabeteetan igartzen da euren konpetentzia, gero nabikoa barretzen da”. Espe Arriaranen hitzetan, “badaukagu klientela fijo bat eta nagusiki jende zaharra dela esango nuke. Azken batean, jende horri ez zaio gustatzen superfiziek haundi horietara joatea, erosotasunagatik batik bat eta baita askoz leku botzagoak direlako, ez dago hemen ematen den tratua zuzen hori. Hemen atariraino laguntzea es-

kaintzen diozu, edota zorrak apuntatzeko koardernotxo ere badago..., beste konfidantza bat ematen da”.

Hemendik gutxira IFA taldeak beste supermerkatu bat zabalduko du Bergaran, azokan, eta Aldi-Iralakoek grupo berekoak izanik, zalantzak dituzte. Mariaje Perezek azpimarratzen duen moduan, “produktu antzekoak eta ziurrenik prezio hobeak ekarriko dituzte eta ikusi egin behar...”. Herriarrek euren erosketak herrian egin ditzaten ez dute formula majikorik baina Bedelkar, herriko dendarien elkarteak aukera ezberdinak aztertzen ari dela adierazi digu Espek; “astebukaeretan, Udalarekin batera, umeentzat zerbait antolatu daiteke eta horrela gurasoak Bergaran geratuko dira. Eta jendeak erosketak herrian bertan egiten baditu, denon onerako izango da, finean komertzioetan herriko jendeak lan egiten duelako...”.



Esperen ustez superfiziek haundien eragina hauek zabaldu ondorengo lehen asteetan igartzen da batik bat.



## Elsa Rodriguez

Bedelkarreko presidentea

### Zelako eragina izan dute superfizie haundiek Bergaran?

- Eragin handia daukate eta ez da batere erreza horren sendoak diren enpresei aurre egitea. Badago bide bat eta, hain zuzen, kontsumitzaileek gauzak garbi izatea litzateke. Egunkari batean superfizie haundietan erostea merkeagoa zela irakurri nuen, baina hori ez da horrela. Benetan behar duzuna erostera mugatu eta ofertak aprobetxatuko bazenitu, egia izan zitekeen baina jendeak askotan behar ez dituen gauzak erosten ditu. Gure amonek eramaten zuten erosketazerranda egitea litzateke aurrezteko modua, baina superfizie haundiek kontsumo hutsa bultzatzeko teknikak erabiltzen dituzte eta, horrez gain, gure aisialdia bertan igarotzea lortzen ari dira. Oso tristea da, azken batean gure seme-alabei kontsumo hutsa besterik ez diegulako irakasten.

### Zeintzuk dira sektore kaltetuenak?

- Guztioi tokatzen zaigu zati bat baina

beharbada elikagaiena izango da. Superfizie haundietan denetik dago, baina badira oso ondo asesoratuta egin beharko liratekeen zenbait erosketa. Askotan oso erosketa ona egin dugula pentsa dezakegu, baina batzuetan oferta hain erakargarriekin kontuz ibili beharra dugu, ez dira hain ganga onak izaten.

### - Bedelkarren komertzio txikia defendatzeko zerbait egitea aztertu duzue?

- Europako hainbat herrialdetan konturatu dira superfizie haundiak zein kaltegarriak diren herriko bizitza komertzialerako. Herri asko hilik geratu dira eta arazoa berplanteatu behar izan dute. Uste dut oso kalitate oneko komertzioak ditugula herrian eta agintariak horretaz ohartu behar dira. Herriarekin erlazio sendo bat daukagu

eta ez dakit hori bere neurrian baloratzen den. Jendea ere konturatu beharko da horretaz.

Kontsumitzaileek herrian kontsumitzen badute, guztion onerako izango da.

### - Komertzio txikiek zer daukate eskeintzeko zentru komertzialen aurrean?

- Superfizie haundi batean zenbaki bat baino ez zara. Leku hotzak dira eta gainera karroa goraino bete dezazun tranpaz josita daude. Ez daukazu inolako erlaziorik dendariarekin eta ez dugu baloratzen herriko dendariarekin hitz batzuk izateak duen garrantzia. Gure seme-alabak ere kontsumoan hezitzen ari gara eta askotan aire librean jolasean laga beharrean superfizie haundietara eramaten ditugu. Horren inguruko erreflexioa egingo bagenu, beharbada jendearen jarrera bestelakoa litzateke. Komertziantek txikiok etorkizun hobe baten alde lanean eta borrokan jarraitu beharko dugu. Zaharrak izatera ere iritsiko gara egunen batean eta gidatzerik eta boltsak eramaterik ez dugunean, zela egingo ditugu erosketak horrelako tokietan?

*“Europako hainbat herrialdetan, superfizie haundien erruz, herri asko hilik geratu dira”*



Susana Izak esaten duenez, agintariak ez dute superfizie haundien gaia behar bezala aztertu.

Itñaki Acedo Kabutzia arraindegiko nagusia ere kaltetua sentitzen da superfizie haundien konpetentziarekin, baina bere eskaintza hangoarekin desberdindu nahi du: *“kalitatea bilatzen duen bezeroak niregana etortzen jarraitzen du, nireak bezalako produktuak eskeintzen dituzten arraindegiek superfizie haundiek baino kalte haundiagoa egiten didate. Baina superfizie haundiek kentzen dute merkatua bai, basieran batez ere. Jendeak askotan kriterio haundiegirik gabe erosten du zentru komertzial haundietan eta kaduzitatea duen*

produktu freskoen kasuan ez dut uste erosteko leku aproposenak direnik. Goizean goiz egunero portura joanda askotan arazoak izaten ditut nire gustoko kalitateko produktuak lortzeko, ba, pentsaizu horrelako enpresa haundiei zein zaila gertatuko zaien kalitate linea bat jarraitzea...".

### Erosketak herrian

Yazki Gazte jantzi dendan lanean ari diren Marian Lizarralde eta Tere Garamendik azken urteotan salmentek behera egin dutela adierazi digute; "lehen zapatu arratsaldeetan jende asko ibiltzen zen; orain, berriz, asko jeitsi da hori. Jendea asko irtetzen da kanpora eta beste lehen-tasun batzuk ditu: bidaiak, kirola..., askoz gutxiago arduratzen da jendea ondo janzteaz eta domeketan, adibidez, ez da lehen besteko jendetza irtetzen. Eta irtetzen den jende gehiena txandalarekin doa... Badirudi moda ez dagoela modan..." diosku Terek.

Inguruko herrietako

egoera oso antzekoa omen da. Marianen uste-tan, "lehen zapatua aste-ko egunik onena izaten zen, gure sektorean behinik behin, eta orain askoz lasaiagoa izaten da. Akordatzen naiz Irizarreko dendan 6 langile egoten zireneko garaia eta orain 2 besterik ez dira egoten. Pentsaizu...".

Herria bizitzeko formula berriak lantzearen garrantzia azpimarratzen dute; "orain Bedelkarreko dendariok kotxe bat zozketatuko dugu Gabonetan eta horrelako gauzek izaten dute eragina, bai. Urte guztian oparitzen ditugu gauzak eta funtzionatzen du horrek. Kaleak bizitzeko ere argi gehiago jartzea ez legoke gaizki... Moda desfileak? Aurten ez dugu egin, buruhauste asko ematen ditu eta, gainera, ez du eraginik izaten salmentak gebitzeko".

Amaitzeko, komertzio txikietan eskaintzen den



Marian Lizarralde eta Tere Garamendi, Yazki Gazteko dendariak.

tratua gorai patzen dute eta Gabonetara begira herriarrak erosketak herrian egitera gonbidatu nahi dituzte; "Bergarako

eskaintza oso zabala da, badago non erosi eta era guztietako kalitate oneko produktuak topatu ahal izango dira".

**"Lehen zapatu arratsaldetan jende asko ibiltzen zen, asteko egunik onena izaten zen eta orain, berriz, asko jeitsi da hori" TERE GARAMENDI**

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

EGUNEKO MENUA + OGIA, POSTREA ETA ARDOA

**950 PTA.**

**PISZINETAKO**

**TABERNA**

BERGARA TF. 76 53 55

**EGUREN**

**GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45



**KORTA-ZAR**

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO  
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

# Julian Tellaetxe pintore bergararraren lanak ikusgai

**Julian Tellaetxe pintore bergararra zenaren mar-goak ikusgai daude egun hauetan Kutxa Fundazioak Donostiako Garibai kalean duen erakusketa aretoan. Tellaetxek bere bizitzan zehar landutako koadroak ikusi daitezke bertan. Erakusketa astelehenean ireki zen eta abenduaren 14ra arte izango da zabalik.**

Julian Tellaetxe Aldasoro 1884ko azaroaren 30ean jaio zen Bergaran (bere ama eta honen familia bergararrak ziren) eta 15 urte zituenean Lekeitiora, Tellaetxetarren jaioterrira, joan zen bizitzera. Bertan, arrantzan lanean hasi zen eta mundu osoa zeharkatu zuen. Halere, gaztetan laga zion arrantzan egiteari eta



mende hasieran Madrileko Eduardo Chicharroren estudioan hasi zen pintatzen; handik urte batzuetara Pariseko Julien et Colarosi akademiara abiatu zen eta bertan egin zuen bere lehen erakusketa 1913an, 29 urte zituenean.

Asociacion de Artistas vascos elkartearen sortzaileetako bat izan zen (1911). Bakarkako zein taldekako erakusketetan



Bilboko Arte Ederren museoak laga duen "Pescador viejo" (1921) olio-pintura ere ikusi daiteke Kutxa Fundazioak antolatutako duen erakusketa antologikoan.

ezagutarazi zituen bere koadroak: Brussela, Madril, Bartzelona, Bilbo eta Parisen. 1937an Pariseran erbesteratu zen eta handik Limara joan zen. Pintore eta irakasle izateaz batera, Peruko ondare artistiko nazionalaren zainzaile izendatu zuten 1952an. Liman hil zen 57ko abenduaren 24an, 73 urte zituela.

Bere lanari dagokionez, irudiak eta gaiak maiz errepikatzen zituen, itsasarena bereziki (arrantzaleak, itsasoa, arrantzun-tziak, portuak, e.a.), bere

gaztaroko lanbideak lagatako arrastoaren adibide. Hori dela eta, egin zituen koadroetako askok elkarren antz handia dute. Gauguin eta Cézanne -Tellaetxeren laguna azken hau- inpresionisten eragina nabaria da haren lanetan, baita Van Goghena ere. Bestalde, kolore ausartak eta irudi ia kubistik erabili zituen.

Kutxa Fundazioak antolatu duen erakusketa honetan Tellaetxeren 70 lan ikusi daitezke: oleoak, pastelak, plumillak eta bozetoak. Erakusketa

antologikoa da, beraz, Tellaetxeren ia lan guztiak biltzen dira, lanik azpimarragarri eta esanguratsuenak. Koadro guztiak Tellaetxek egindakoak dira, bat izan ezik, Ascensio Martiarenak Tellaetxe berari egindako erretratu bat hain zuzen.

Hiru koadro Kutxa Fundazioarenak dira eta beste guztiak, hainbat erakunde, museo, galeria edota partikularrek lagatukoak, tartean Reina Sofía museoak lagatako "Costa Vasca" (1912) izenekoa.

**Kutxak Donostiako Garibai kalean duen aretoan pintorearen 70 koadro ikusgai daitezke: olio-pinturak, pastelak, plumillak eta bozetoak**

# kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 6 zenbakia, 1997-11-21

## Afari berezia zapatuan Gaztetxean

Giro ederra izango dute bihar, bertsolariekin eta txiste kontalariekin

Herri kiroletan aihertarren aurka jardun eta gero, jai giroan jarraitzeko asmoa daukate Gaztetxeok. Hasiera batean antolatu zuten anaitasun eguna, aihertar gazte eta oriotarrekin, bertan behera gelditu bada ere, datorren zapatuan, azaroak 22, egin behar duten bertso-txiste-kantu-afaria mantentzea erabaki dute.

**G**aztetxeok adierazi digutenez, "Aiherrako gazteekin zerbait egiteko asmoa aspaldiko kontua da; Antzuolako jaietan ezagutu genituen eta geroztik jai denetan elkartu gara: Donostian, Azpeitian, Egin egunean, Kilometroetan...". Hala ere, aste honetan ospatu behar zuten anaitasun eguna urtarilerara arte atzeratu beharko dute; baina "zapatuan egin behar genuen jai mantenduko dugu, jende askok eman baitu izena afarirako".

Aspaldi honetan Gaztetxeak antolatutako ekintzetan jende askok parte hartu du. Otsaileko asanbladan Gaztetxeok arduradun berriak aukeratu zirenetik, hamasei lagunen artean eraman dute Gaztetxea. Beraiek diotenez, "oso aberasgarria da; jende gehiagorekin gauza gehiago egin daitezke". Bost kuadrilatako taldeak indar handia eman dio Gaztetxeari. Jende gehiago erakartzea lortu dute Gaztetxera, eta hasieran zena errekupekatzen ari dela esan daiteke. Gaztetxeokoen esanetan, "ardura bost kuadrilatako jendeak izatean, gazte gehiago erakartzea lortu dugu; horrek bizitasuna eman dio Gaztetxeari".

Hamabi urte dira Gaztetxea zabaldu zela; ordutik urtean behin aukera



Gaztetxeok, argazkia ateratzea bera ere ekitaldi bihurtu zuten.

tzen da arduraduna asanbladan. Datorren otsailean izango da asanblada hori eta Gaztetxeok esan digutenez, "denok aurkeztuko ez bagara ere, jarraitzeko asmoa daukagu".

### Ekintza gehiago

Abenduaren 13an egingo duten kontzertuaz gain, Antzuola Bergararik

banatu zeneko eguna ospatzeko asmatan dira Gaztetxeok abenduaren 20 edo 21ean. "Momentuz ez daukagu egitaraua zeharo zehaztuta, baina herriko hainbat talde horretan ari gara. Hala ere, jenderik ez badago ezingo da ospatu, horregatik herritarrek animatu nahi ditugu. Gainera bergararrei ere gertatzen hasteko esan nahi diegu, kainoiak ere gertu dauzkagu eta".

### GAZTETXEKO EKINTZETAKO BATZUTAN IZANDAKO LAGUN KOPURUA

<b>Otsaila</b>	Asanblada: jaiak .....60
Karnabal afaria.....80	<b>Maiatza</b>
Hiesaren gaineko hitzaldia.....50	Joxe Ripiau.....160
Asanblada: Kultur etxea.....70	Aitzol Mujika .....100
<b>Martxo</b>	<b>Ekaina</b>
Asanblada: Kultur etxea.....60	Deabruak Teilatuetan.....160
Ehun Kilo .....100	Futbolin txapelketa.....32
<b>Apirila</b>	<b>Urria</b>
Vantroi eta Gorroto.....140	Kilometroak. 2 autobus.....110
Mendi irteera eta baba jana.....35	Nafarroa Oinez. 2 autobus.....125

**Azaroaren amaieran mendira**

Malkorrara joango dira Arrolakoak hil honen 30ean. Parte hartu nahi duenak datorren astelehenean, azaroak 24, eman beharko du izena, Arrolako lokalean, 19:30etatik aurrera. Gaztetxoen eskolarteko kirol lehiaketarako baliagarria izango da irteera.

**Euskara Euskal Herrian**

Azaroaren 13an izan zen "Kultura eta hizkuntza Ipar Euskal Herrian", Erramun Bachoc eta Txomin Heguyren hitzaldia. Iparraldean euskarak eta euskal kulturak bizi duen egoerari buruz aritu ziren bi hizlariak. Euren ustez, hezkuntzak euskararen gainbehera historikoa gelditu du Hego Euskal Herrian, eta Iparraldean ere hori gertatzea espero dute, "nahiz eta haurren %20ak baino ez duen euskara seriozki ikasten". Hizkuntz politikaren beharra azpimarratu zuten, biek ere beharrezkotzat jotzen baitute euskararen garapenerako.



**Diapositibak non-nahi**

Arrolaren 25. urteurrena dela eta, mendi elkarteak antolatutako diapositibak emanaldiak ikusteko aukera izango da datorren astean ere. Martitzenean, azaroak 25, Antxon Burciok eskainiko duen "Elurra eta elur jausiak" saioa izango da, 19:30etan, zinean. Eguenean, azaroak 27, Ramon Agirrek "Itsasari begira" emanaldia eskainiko du, leku eta ordu berean.

# Ipuin kontaketa ikastaro arrakastatsua



*Ikastaroan aritu direnetako batzuk. JUAN CRUZ ARG.*

**Joan zen** astean amaitu zen Rai Buenok eta Maite Larreak, Oihulari Klown taldeko kideek, eskaini duten ipuin ikastaroa. Hamahiru lagun elkartu dira martitzenero hilabete batez ipuinak kontatzen ikasteko, eta partehartzaile batek esan digunez, "gustoren geundenean amaitu da, gainera irakasleek maitasun berezi bat adierazten zuten ipuinekiko eta horrek «engantxau» egiten du".

Ipuina nola dagoen eratuak ikasi eta gero ekin zioten ipuinak kontatzeari;

ikastaroan eta parte hartu duenetako batek esan digunez "ikastaroa oso aberasgarria izan da".

**Jarraitzeko asmotan**

Lehenengo aldiz egin da horrelako ikastaroa eta jendea "ikaragarriko gogoarekin gelditu da". Partehartzaileek jarraitzeko asmoa adierazi dute eta datorren hilaren 9an afari-merienda egitekotan dira saioekin nola jarraitu daitekeen ikusteko.



**Anaitasun eguna**

Aihertarrak izan genituen Antzuolan domekan jai giroan eta herria ezagutzen. Goizean Gaztetxekoekin herri probetan aritu ziren plazan. Argazkia kaskara jokoan ateratako da.



Herriko plaza Tf. 78 70 66  
ANTZUOLA

*Juan Cruz*  
ARGAZKIAK  
Ezkontza erreportaiak  
jaunartze erreportaiak  
momentuko argazkiak

BITXITEGIAK  
Marrokineria  
Erlojuak  
Bitxiak  
Aukera zabala  
oparietan



# Gazinema, herriko zinearen arduradun

**Olentzerorendako karten sariketa**

Guraso Elkarteak zine emanaldiez arduratzen zenean erabaki zen bideoa erabiltzea. Orduko aukerak –pelikulen formatoak– sortzen zituen arazoei aurre egiteko bideoarekin lanean hastea erabaki zuten. Hasieran Guraso Elkarteak egiten zuen lana, piskanaka-piskanaka, Gazinemak hartu zuen bere gain. Orain, lagun talde horrek, Gazinemak, hitzarmena sinatu du Udalarekin zine aretoaren gestio osoaz arduratzeko; domeketako saioez ere arduratuko dira.

aldiz ikustea merezi duen filmea izatea; hala ere, gure ikuslegoa 12-17 urteko jendea da eta helduak ere zinera etortzea nahiko genuke”. Bestalde, badirudi herrian zinera joateko ohitura gutxi dagoela, “badira batzuk zinera joan eta kalean egongo balira bezala aritzen direnak, berbetan edota barrez, nahiz eta pelikula komikoa ez izan, eta horrek kalte handia egiten dio zineari, saioetan seriotasunik eza sumatzen delako”.

## Pelikularik atseginenak

Mikelek dioenez, zine komertziala da jendeak atsegin duena. Jende gehien bildu duen pelikula “Jurassic Park izan da”; “entretanimenduzko pelikulak gustatzen zaizkie, batez ere zinera ondo pasatzera joaten direlako”. Baina Mikelek gogorarazi digunez, errekorra Despedida de soltero”k dauka: 163 lagun.

## Zinerako ohitura gutxi

Mikel Larrañagak, Gazinemako partaideak, adierazi digunez, Antzuolan zineak daukan eragozpen handienetakoa estreinuen atzerapena da. Hori dela eta, “pelikulak hautatzerakoan bi irizpide izaten ditugu; batetik, pelikularen kalitate teknikoa eta bestetik, bigarren

“Idaztea gustatzen bazaizu eta Olentzerore zure etxera ere iritsiko den esperantza baldin badaukazu, idatziozu!”. Horixe da Idolazek antolatutako duen eskutitz sariketako leloa. Haurrak ezezik adin guztietako jendea animatu nahi dute idolazkideek.

Sariak lau mailatan banatu dira: 1986an edo harrezkero jaiotakoak, 1982-85ean jaiotakoak, 1979-81ean jaiotakoak, eta 1978an edo lehenago jaiotakoak. Eskutitzak nahi den luzerakoak izan daitezke. Eskolan, liburutegian eta libudendan buzoiak jarriko dira Olentzeroren lana erreztzeko eta eskutitzak abenduraren 17a baino lehen bidali beharko dira; bestela, ez zaizkio denboraz helduko Olentzerori.

## Oinarinen oharra

Dantza taldea hasita dago karnabaletarako dantzak gertatzen. Nesken partehartzea bultzatu nahian, entseuetara joateko deia egin diete dantzak ikasteko. Oraingoz 22 neskek eman dute izena.


## GURE ARTIAN

# Nola ikusten duzu Aiherra eta Antzuolaren arteko hartu-eman?



**Saioa Rodrigez**

Oso ondo, baiña gehixogotan alkartu biharko giñake; gaiñera mugarik gabeko Euskal Herri baten alde egiten da eta uste dot gaztiak gehixago inplikatu biharko giñakiela.



**Arkaitz Zabalo**

Ondo, baiña oiñarte harreman hori udaletxetik ertean da eta hoztasun hori igarri egitten da antzuolarren aldetik; herrixaren aldetik ezta egon bultzadarik eta falta da.



**Maria Jesus Irizar**

Garrantzitsua eta beharrezkoa da Euskal Herriko muga gaintzetzeko. Sarriago egin beharko genituzke horrelakoak; jaietan, familia artean eta gazteen artean.



Zurrategi plaza, 4 behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

# Iratzarra, Patxi Saizen azken diskoa

Patxi Saiz kantaria 17 urte zituela etorri zen Antzuolara lehenengo aldiz. Kalebarrengo jai batzuetan gonbidatu zuten eta orduantxetik harreman berezia izan du antzuolarrekin. Oraintsu atera berri duen diskoa saltzera etorri zen orain dela gutxi Antzuolara.




**Z**er egiten du getariar batek Antzuolan?

Harremanak aspaldi egin genituen; Kalebarrengo jaietara etorri nintzen orain dela 14 urte. Eguerdi batean aritu nintzen ibaiaren aldamenean ipini zuten taulatuan jotzen, megafonia kaskar batekin. Baina berriro etorri nintzen Kalebarrengo jaietara; geroztikan zinean ere egon naiz jaialdi batzuetan.

**Baina Patxi Olabarriarekin jardun duzu kontzertuak ematen**

Korkoil hasi zenean niri

■ ■ ■  
*“Kantu goxoak lagunarteko giroan entzuteko aukera bat dela uste dut”*  
 ■ ■ ■



Patxi Saiz kantari getariarra.

teklatu bat interesatzen zitzaidan eta Patxi teklatura jotzen zuen. Ondorioz, lehenengo maketa bat egin genuen; nik ideiak eman eta berak eramaten zituen konponketa kontu guztiak. Konpakto honetarako ere hasi ginen elkarrekin lanean, eginda geneukan bion artean aurreikuspen bat, eta atera dudana ordukoaren fruitua izan da; agian berarekin zerbait ezberdina irtengo litzateke, bere ikutua emango lioke, aurreko maketan bezala.

**Nola definituko zenuke zure diskoaren musika?**

Beno, proiektua orain dela bi urte hasi zen, nahiz eta ideia lehenagokoa izan. Lan guztiaren ardura eraman dut, produkzio etxeekin lan ez egiteagatik; eta musika intimista samarra dela esango nuke. Gustatzen zaidana eta barrutik irtetzen zaidana egin dut. Diskoa entzun zuen batek esan zidan nahiko arraroa dela, sentimentala edo dela.

**Zer esango zenioke jendeari zure kantaldietara joateko?**

Norbera bere produktua saltzeko saltzailerik txarrena dela diote eta neu ere horretan naiz txarrena; baina kantu goxoak lagunarteko giroan entzuteko aukera bat dela uste dut.

## XABIER AGIRRE ETA ALAITZ ZABALO ANTZUOLARRAK TARTEAN

**B**i antzuolar ere aritu dira diskoaren grabazioan. Alaitzek “Irudikatu zintudan” izeneko kanta bi ahotsetara entzun daitekeen xirula jotzen du. Baxuan Xabierrek jardun du eta diskoaren musika moldaketak ere berak egin ditu. Xabierrek azaldu digunez “Patxi Olabarriak

eginda zeukan zeozer; gero denpora asko egon da geldik proiektua; azkenian Saizek deitu zoztan eta saxua eta perkusiñua jo bihar zebenekin alkartu eta grabatzen hasi giñan”.

Prozesu luzea izan bada ere, gustura egin duten lana izan da; Xabierrek dioe-

nez, “gure kasa ibilli gara; ahal giñuanian alkartu gara eta teknikuakin be oso gustora”.

Xabier lehen ere ibili da Patxi Saizekin lanean. Aurreko maketan ere baxua jo zuen “baina aurreko maketiakin konparatuta, sonido aldetik hobeto dago hau; es-

tudixua be orainguan hobiazan”. Momentuz diskoaren aurkezpen ofizialik ez dute egin, Xabierrek dioenez, “Patxi nahi dau Arantzazu Saiz (pianojolia), Enrike Txurruka (perkusiñua), Jesus Alvarez (saxua) eta ni be jutia kontzertutetara baiña ikusiko dogu”.

**igok eta Txomin**

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA  
 ☎ 76 60 39

BERGARA  
 ☎ 76 19 98

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren, 17  
 ANTZUOLA

Sexua

## Desioa eta gozamina

- **Zergatik sortzen da desioa?**

- Jaiotzen garenetik dugu sexualitatea. Desio sexuala pulsio bat da, jaiotze bezain pronto desioa daukagu plazerraren gaitasuna dugulako. Eta plazerra beharrezkoa dugu nolabait hazkuntza eta hezkuntza psikologikoa lortzeko. Desioa sortzeko faktore nagusia sozializazioa da, harremanetan jartzeko garen momentutik bestearekiko desio erotikoa jaiotzen baita. Eta beste pertsonarengan desioa izateko txispa edo feelinga pizten duten faktore kimikoak, anatomikoak edo psikologikoak daude tartean.

- **Zer bilatzen dugu beste pertsonarengan?**

- Gauza asko: segurtasuna, afektibitatea (gizakiok maitasunaren premia handia dugu), maitasuna, elkartasuna, ulertkortasuna eta baita gorputz komunikazioa ere.

- **Gozamina lortzeko zer da beharrezkoa?**

- Lehenbizi, gozamina sentitu ahal izateko gure buruarekin pakean egon behar gara. Autoestima

nahikoa izatea eta gure buruarekin adostasunean egotea ezinbestekoa da bestearengan plazerrean murgiltzea nahi badugu. Bestalde, gozaminenak eta maitasunak daukan liluririk inportanteena konpartitze hori litzateke, sentimendu, sentsazio, ideia eta proiektuak zeinek batera bizi ahal ditugun topatzea, alegia.

- **"Truko majikorik" gozamina lortzeko?**

**"Desio sexuala ez bada lantzen, hil ez baina desagertu egiten da. Fantasia beharrezkoa da"**



Elkar seduzitzen jarraitzeko egoera berriak topatu behar dira.



**AMAIA VAZQUEZ**

(Psikologoa-sexologoa)

- Ez, niretzat balio duenak behar bada zuretzat ez du balio. Oztipoa izan daiteke hori, baina aberasgarria ere bada. Egia da zenbait gauza amankomunak izango direla, gozatu ahal izateko gauza batzuk landu behar direla: bestearekiko konfidantza, komunikazioa,

eta abar. Eta hori lortzen badugu gozamina handiago izango da. Gertatzen da nahiko beldurtiak garela; urteak aurrera joan ahala nahiko beldur pilatzen zaizkigu (tartean porrotak izan direlako) eta askotan beldurra da (segurtasun ezarekin lotuta) beste pertsonarekin gozatzeko oztopo handiena.

- **Fantasiak eta irudimenak zelako garrantzia daukate?**

- Desio sexuala ez bada lantzen, hil ez baina desagertu egiten da. Badakigu desio sexualak aldateta asko izango dituela gu aldatzen garen heinean; 15 edo 35 urterekin desio sexuala desberdin bizi dugu. Fantasia eta irudimena behar dira errutinatik ateratzeko. Seduzio munduan baliabideak presente izan behar ditugu eta hori bikote bakoitzaren artea da. Elkar seduzitzen jarraitzeko espazio eta egoera berriak topatu behar dira.

- **Bukatzeko, euskaldunok zela bizi dugu sexualitatea?**

- Nahiko modu hipokritan, itxurak egiten ditugulako gure bizitza sexuala oso betegarria dela etabar. Estereotipo asko daude eta orain modan dago norbera oso liberala eta bizitza sexuala oso aktiboa duela esatea, baina hori ez da egia.

**IZADI** PILI GISASOLA

Zurradero, 2  
behea.  
☎ 76 58 83

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

**SUBIATI**

Gazteentzako moda


Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**AGOITZ**

Tapizdenda


San Lorentzo, 25 BERGARA  
Tfnoa: 76 18 23

## Zein iritzi daukazu superfizie haundiek jaiegunetan zabaltzeari buruz?



**Igor Legazpia**

Zabalik baldin badaude, aprobetxatu egiten da joateko, baina, nire ustez, itxita egon beharko lirateke, txikiagoei kalterik ez egiteko.



**Salvador Gonzalez**

Ez lukete zabaldu behar. Astean zehar nahikoa irabazten dute eta zapatuetan ere badago erosketak egiteko aukera. Bertako langileek ere jai izatea ez legoke gaizki.



**Mari Kruz Azkarate**

Nik neuk ez daukat ohiturarik jaietan erosketarik egiteko eta txikiendako ez dator ondo horiek zabaltzea, denak berdinak izan daitezten.



**Mari Karmen Larrañaga**

Ez nago ados, lortu direlako eskubide batzuk langileendako eta orain hauek apurtzea, ba, ez dut normal ikusten.



**Ana Gomez**

Niri ondo iruditzen zait; astebaruan lanean dabilen jendeari ondo etorriko zaio hori, ez baitauka erosketak egiteko beste egunik jaieguna baino...



**Angel Trapero**

Ez, jaietan itxita egotea normalagoa ikusten dut. Batzuetan joan izan gara horrelako tokietara erosketak egitera, baina jaiegunetan itxita izatea ez nuke gaizki ikusiko.

**zumelaga**  
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!  
San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**INFERNUKUA**  
**TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49



## Exuperancia

Azken urte hauetan GALen kontuak El Mundon harrotu izana ez diote Pedro J. Ramirez kazetariari barkatzen, eta ordainsartan bengantza eratu diote.

Labur eta leun esanda, Pedro Jota famatua Exuperancia ize-neko dama batekin jolasean-edo ari zela, bideoan harrapatu du-te.

Bideojolasa, bideojokua ala bideojukutria da hori?

Auzi honetan guztian gauzatxo bakar batek eragin du nire interesa, baina. Hona hemen, zerk.

Ofizios irakaslea naiz eta urtero-urtero aurkitzen naiz ehun eta gehiago ikasle berriren izen-deiturak ikasi beharrean; eta senperrenak egiten ditut Ainara, Naiara, Ainhoa, Oihana -izen bakoitzaren ortografiarena bake-bakean lagako dut, kontu liber-tario samarra da hori eta- eta antzerako izendunen artean zein zeinena den argitzen. Askotan Garcia edo Perez bezalako deitu-ra korrienteak izaten dituzte gainera ikasle horiek, eta gelaz gela izaten da horrela, gainera.

Bestelako sasoiak ziren etxe berean Leona, Zelestina, Benita edo Bixenta bezalako izen zoliak batu zitezkeeneko haiek. Nola ez ba ikasi amenjesus batean halako piezak?

Baina oraingoan nekez ahazteko moduko izena ezagutu du-dala uste dut. Izan ere, Exuperanciaren proportzioak ez dira egunero entzuten ez eta irakurtzen ere, gure artean behintzat.

Halako izenarekin munduan zehar apellidurik gabe ere ibili liteke, seguruenik.

Bai zori ederra izan dutela delako Exuperanciaren irakasle eta enparauek!

**Markos BALENTZIAGA**



## Xake mate?

Aste honetan pentsamendu bat darabit buruan, etengabe jira eta buelta dabilena. Joan zen astean Lakuako Gobernuak kaleratutako sondeo baten erantzunak burutik kendu ezinda na-bil, harrituta. Beste hainbat gauzen artean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen erdiari Mahai Nazionalaren epaiketa on-do iruditzen zaiola adierazten da sondeo honetan.

Banekien jakin, jendeak bere egiten duela, besterik gabe, Gobernuaren egia. Eta Gobernuak bere aldetik, bere egia abso-lutua eta bakarra sartu nahi digula guztioi. Sartu nahi digula, eta sartzan digula. Edonon eta edonoiz aurkitzen ditugu errealtate manipulatu eta faltsu honen mezuak: zinean, musikan, kalean, lanean..., eta nola ez, komunikabideetan. Mezu hauek gure bizi-tzako arlo guztietara iristen dira, hauek kondizionatu eta molda-tuz. Eta guk jaso, irentsi, onartu eta gureganatu egiten ditugu. Batzutan kontzienteki, baina beste batzutan inkontzienteki.

Gaur egun oso zaila da, ezinezko ez bada, gobernuen joku makiabeliko honetatik ihes egitea. Gustoko edo ez, gizartearen partaide gara guztiok. Eta gizarte honen partaide garenetik, jo-koaren arauak onartzen ditugu, gu ere jokalar bihurtuz. Baina ezagutzen al ditugu arauak? Ala gizartearen sareetan murgildu-rik berak eramaten gaituen bidetik jarraitzen dugu besterik gabe?

Baina bada arauen bat onartzen ez duen jendea, bada, ma-kiabeliko horiek jokuz kanpo utziz, ezarritakoaren aurka altxatzen den jendea oraindik ere. Eta horrelakoetan, besteok gara, Go-bernuaren egia absolutua gure eginaz beraien aurka joaten ga-renak, egia unibertsal horren izenean egia partikular anitzak isil-tzen saiatzen garenak. Eskerrak egia partikular horiek oraindik ere ugariak direla.

**Ainhoa LETE**

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

## ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...

Kafe - Taberna • *BERGARA* • Pentsioa

*Pintxoak, kopak, boiloak...*

Egunero goizeko 7etatik 10ak arte zabalik  
Bidekurutzeta, 34 Tf. 76 47 23



## TABERNA ZAHARRA

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

Tfnoa: 76 21 21  
**ANGIOZAR**



■ **Animen eguna Osintxun**

Azaroko hirugarren astelehenean **Animen Eguna ospatzen da Osintxun** eta astelehen iluntzean ere, **Txurrumilo** elkarteak antolatuta, **gaztain erreak eta sagardoa** banatu ziren. Ondoren kuadrilak bertako jatetxe eta elkarteetan bildu ziren hain berezia den egun hori zelebratzeko. Menua ohiturak agintzen duena izan zen: azak, odolosteak, saiheskia eta gaztainak. Argazkian, Txuringo jatetxean bildutako lagun talde bat. Afalosteko dantzaldia **Jo ta su** trikitalariek alaitu zuten.

■ **Ihardunaldi pedagogikoak**

**San Martin Agirre herri ikastetxeak** ihardunaldi pedagogiko batzuk antolatu ditu, ikastetxearen zenbait helburu zabaldu, aztertu eta irtenbide berriak eman nahirik. Aurreko egunean elikadura gaietan aditua den **Alberto Iturbe** medikuak “Elikaduraren garrantzia garapenean. Irtenbide praktikoak” izenburuko hitzaldia eman zuen eta Kultur Etxeko aretoa txiki geratu zen. Gaiak entzule mordo bat erakarri zuen eta Iturbek elikadurari buruzko adibide praktikoak azaldu zituen. Atzo, berriz, **Izaskun Madariaga** haur eskolako irakasle eta pedagogoak “Agresibitatea eta autoestimazioa haur txikiengan” gaiari buruz jardutekoa zen, horrela ihardunaldiei amaiera emanez.



■ **Abeslarien bazkaria**

**Santa Marina eta San Pedroko abesbatzetako kideek bazkaria** izan zuten domekan Ollagorra elkartearen. Aurretik, 11:30etan **Santa Marinarantz izandako meza nagusian**

lagundu zuten eta, ondoren, Jose Ramon Elkoroberezibarrek Ollagorran prestatu zien bazkaria dastatu zuten oso giro onean. Denera 50 lagun inguru bildu ziren bazkarian eta, nola ez, bazkalostean kantuan amaitu zuten guztiek...

**Aldoka  
Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA

**iRUDI**

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



■ **Santa Ana txapeldun**

Santa Ana elkarteak aurtengo **elkarteen arteko mus eta tute txapelketa irabazi** zuen zapatuan, finalean **Goxo-Pe** elkarteari **2 eta 1eko**

**emaitzarekin** irabazi ondoren. Santa Anakoak tute eta 8 erregetako musean nagusitu ziren eta Goxo-Pek 10 erregetako musean lortu zuen puntua. Santa Anak orain bi urte lortutako garaipena errepikatu du. Txapeldunen aldetik (argazkian) honako bikote hauek aritu ziren lehian: **Antonio Mulas eta Jose Antonio Terraza** (8 erregetako musean), **Antolin Marchena eta Emiliano Garcia** (10 erregetako musean) eta **Francisco Bretaña eta Jose Forjan** (tutean). **Hirugarren posturako** lehian **Hermanad Pertxak 3 eta 0 irabazi zion Artatseri**. Artatsekoek Jokin Altuna **“Taiño”ren alargunari** eskeiniko diote lortutako trofeoa. Giro bikaina izan zen Pertxan izandako finalean eta datorren urtean Santa Anak hartu beharko du antolaketaren ardura. Bestalde, baliteke hurrengo edizioan partida guztiak egun bakar batean jokatzea.

■ **Asto-jana**

Bergarako lagun kuadrila batek urtero moduan, **asto-jana** egingo du bihar, zapatua, herriko jatetxe batean. Aurtengoa asto-janaren **30. edizioa** izango da eta, ohizkoa



denez, antolatzaileek astoaren gibela, bihotza, mihia etabar dastatu zituzten herenegun, okelaren kalitate ona frogatzeko. Biharko afarian **50 lagun** bilduko dira Agirrebeña jatetxean eta menua betikoa izango da. Antolatzaileek umorez adierazi digutenez, animaliairen buruarekin arrainzopa prestatzen dute eta jarraian txuletak eta astoa saltsan jaten dute. Astoa Oñatiko baserri batetik ekarritakoa da, bost bat hilabete zituen eta kanalean **40 bat kiloko pisua** eman zuen. On egin!!

**Zertan dihardute ba?**



**Agustin Aranzabal**

24 urteko futbol jokalaria bergararrak 2004 urtera arte luzatu zuen martitzenean Realarekin zuen kontratua. Aranzabal Realeko jokalarietatik kontraturik luzeena (7 urtekoa) eta klausularik altuena (5.000 milioi) duena bilakatu da kontratu berri honekin. Bere hitzetan, *“beti izan dut Realean jarraitzeko ideia, oso gustora nago hemen eta nire karrera hemen bukatzeko asmoa daukat. Segituan heldu gara akordio batera eta oso pozik nago”*. Bien bitartean, Aranzabalek lesionaturik jarraitzen du eta abendurako jokatzeko prest egongo dela espero da.

**ileapaindegia**  
eder gela  
**disdira**  
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

**ZUBIETA**  
**elektragintza**  
MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**  
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...  
Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik  
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Jose Luis Armendia

**Jose Luis Armendia 52 urteko arrasatearrak 16 urte daramatza yoga erakusten. Bergaran, Udaleko Ongizate Zerbitzuak Irizar jauregian antolatutako ikastaroetan 110 ikasle ari dira aurten eta Jubilatuetan beste 15 ikasle ari dira.**

**- Zergatik hasi zinen yoga egiten?**

- Ariketa fisikoa beti gustatu zait eta osatzearren, arnasketa hobetzeko.

**- Zeintzuk dira yoga egitearen abantailak?**

- Lasaitasuna, arnasketa hobe, konzentrazioa...

**- Yoga kirola da?**

- Ez, norgehiago izaterik ez dago. Norberaren mugak ezagutu eta maila guztietan lanean hasteko balio du.

**- Zein adinetako jendeak egiten du yoga nagusiki?**

- 30-35 urte bitartekoak.

**- Zergatik emakumeak nagusi?**

- Beharbada, gizonek ahulen gauza dela uste dutelako... Hala ere, Udalaren ikastaroak emakumeentzat dira bakarrik.

**- Zeren bila dator jendea?**

- Stressa kentzera, arnasketa hobetzera, bizkar hezurreko



*“Ariketa fisikoa beti gustatu zait eta arnasketa hobetzeko hasi nintzen yoga praktikatzen. Yoga egiteko momenturik onena goiza da, ohetik jeikitakoan”*

arazoengatik...

**- Egunean zenbat denboraz praktikatu behar da?**

- 20 bat minutu.

**- Eta zein ordutan?**

- Onena goizean ohetik jeikitakoan.

**- Bakarrik ala lagunduta?**

- Hasieran lagunduta.

**- Yogaz aparte, beste kirolik egiten duzu?**

- Mendi.

**- Inguruko mendi bat?**

- Aizkorri.

**- Janari bat?**

- Arraina, legatza, adibidez.

**- Zer da lagunengan gehien apreziatzen duzuna?**

- Laguntasuna, zintzotasuna.

**- Zenbat ordu egiten duzu lo?**

- Zortzi.

**- Gustoko jantzi bat?**

- Praka bakeroak, poltsiko asko behar ditut eta.

**- Irakurritako azken liburua?**

- “El Budá viviente”.

**- Filme bat?**

- “El principe de las mareas” asko gustatu zitzaidan.

**- Kolore bat?**

- Urdina.

**- Animalia bat?**


- Katua.

**- Bidaia nora egingo zenuke?**

- Ekialdera, Thailandiara. Asko gustatu zitzaidan.

**- Eta zeinekin?**

- Lagun on batekin edo bakarrik. Baina ez antolatutako bidaian...



Torreauzo 9  
Tf. 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI

**Etxe**

Hotela\*\*



**Aundi**

Jatetxea

**SANTA LUZIA**  
egunerako  
menu berezia  
orkesta eta guzti!

**TXINPARTA** taldearen dantzaldia!



**ETXEBIZITZA**

**Garajea** salgai Martokon.  
☎ 76 00 51.

**Lokala** salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m<sup>2</sup>.  
☎ 76 11 89.

**Garaje** bikoitza alokairuan Torrekan. ☎ 76 30 32.

**Pisua** alokairuan Bidekuru-tzeta 14an. ☎ 76 36 99.

**Pisu** eguzkitsua salgai Martiategin. ☎ 76 40 99.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 63 10 (gauzez).

**Garajea** salgai Martokon.  
☎ 76 35 50.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 42 65 (gauzez).

**Lokal komertzialak** alokairuan Zurraderon eta San Pedron. ☎ 76 57 69.

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 78 36 65 (20:00etatik 22:00etara deitu).

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 41 16.

**Etxea** salgai Zubiaurren.  
☎ 76 64 88 (gauzez).

**Pisua** salgai Antzuolan.  
☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

**Garaje** bikoitza alokairuan Zurraderon. ☎ 76 57 69.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

**DENETARIK**

**Andregai** jantzia saltzen dut. ☎ 76 26 70.

**Hozkailu** berria salgai. Egoera onean. ☎ 76 70 86.

**Suzuki** GSX 600 F motorra egoera onean salgai.  
☎ 76 25 61.

**Artzai** txakurrak saltzen ditut. Prezio interesgarria.  
☎ 76 52 21.

**Yorkshire** txakurkumea salgai. ☎ 76 18 96.

**Kanowey** motorra saltzen dut. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 24 57.

**Nikon** FM2 kamara berria salgai. Rowi boltsa haundiarekin. ☎ 76 50 86.

**Estufa japoniarra** salgai. Haundia eta prezio onean. ☎ 76 47 82 (Ana).

**Setter** txakurrak salgai.  
☎ 78 71 67.

**Idazmakina** elektronikoa salgai. ☎ 76 39 14.

**Eskalada** egiteko katuoinak saltzen ditut.  
☎ 76 50 22 (asteburuan) edo (948) 27 11 82 (Noelia).

**"Moncayo"** karabana salgai. ☎ 76 38 26.

**LANA**

**OHO** eta ingeleseko klaseak ematen ditut.  
☎ 76 17 18 (Jesus).

**Gaztetxoei** marrazketa librean laguntzeko prest nago. ☎ 76 34 83.

**Euskara** klaseak hartuko nituzke. ☎ 70 71 47 (Isabel).

**Andre** batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egiten ditu. ☎ 76 00 90.

**Ileapaindegi** batean lan egiteko esperientziadun neska behar da. ☎ 76 56 69.

**OHO** eta DBH klaseak Antzuolan. ☎ 78 71 32.

**Etxeko** garbiketak egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 53 88 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Tabernari** euskaldunak behar dira. ☎ 79 11 25.

**Helduak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke astebukaeran. ☎ 76 56 66.

**Lizentziatu** batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

**Neska** batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 56 66.

**Administratibo** lanerako titulodun neska eskeintzen da. ☎ 907 94 06 67.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.

**Mate**, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

**OHO** eta BBB klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.

ZUBI-BERRI



JATETXEA

**Lehen platera:**  
Entsalada edo  
Fritoak edo  
Nahaskia

**Bigarren platera:**  
Txuleta edo  
Arraina edo  
Piper beteak

Postrea

Kafea

Etxeko ardoa

2.300 PTA

San Anton auzoa Tf. 76 30 24

**Koadrilentzat**  
ezin aproposagoa!

Datorren ostiraletik aurrera,  
azaroak 21,

ostiral, larunbat eta igandeetan  
**oilasko erreak**  
**eramateko!**

Eska itzazu 76 71 19 tf.ra deituz!

Eta gainera, bokata eta pintxo  
karta zabalena daukagu.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean.



# Berrigara Gida 98

## Partikularrei:

Aurten, Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburutxoak, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak**. Partikularren telefonoak Telefonickak 1995eko azaroan argitaratutako listinetik hartuko ditugu; harrezkero **telefono berria jarri baduzu, esan iezaguzu guk gidan ipin dezagun.**

**Azkar ibili, azken egunak baitira.**

**BERRIGARA**

## Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRAK	17	8	26	13
2. ERROTAGAIN	16	7	22	11
3. A ZE FLAXA ETXAGI	15	8	23	15
4. PAGOMENDI	13	8	44	23
5. BAR CANALEJAS	13	8	29	29
6. AZPEITXI JATETXEA	11	8	28	27
7. ETXAGI	9	8	24	22
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	9	8	19	26
9. AGINASPI	9	8	25	37
10. JAUJA OH ZEREZOS	7*	8	25	38
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	5	8	9	20
12. ORTZI	4	7	9	22

## A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. AGIRREBEÑA JATETXEA	21	8	44	15
2. EZINLEIKE	18	8	62	28
3. MANITOU	16*	8	57	8
4. SHAKTALE	16	8	47	9
5. MRW	13	8	31	24
6. MOSKIS	13	8	32	27
7. ALDOKA MALDOKA	11	8	19	26
8. GANBARA ARI ARI	10*	8	20	21
9. INDARGORRI	8	8	20	28
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	3	8	18	59
11. IGANDEKOAK	0*	8	21	44
12. KAIXO	0	8	10	92

## B multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK	18	7	43	17
2. SLO	18	7	34	18
3. BAYER	15	7	28	19
4. AMOZKIBAR	15	7	23	20
5. AUTOBEREZI	13	8	37	41
6. JAKINA PT	12	8	33	26
7. UVE BIKOITZA	9	7	22	24
8. USOA	6	7	21	37
9. TXIPIRON	4	8	12	31
10. ERDIBITERRAK	4	7	20	28
11. AMILOTX	1*	7	12	24

## C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. LA JUVE	19	8	27	11
2. GUADALEST	18	8	30	19
3. FAC	18	7	43	13
4. UFALA	12	7	20	21
5. MATXAKATEGI	12	7	18	23
6. BAR GANBARA	10	7	29	20
7. ERI SIRIMIRI	10	7	19	19
8. ETENGABE	7	7	12	19
9. LA PEÑA DML	3*	7	16	26
10. KOMANDO PIPERRAK	3	7	15	30
11. PATATUS	0*	8	19	47

\* KARNETAK EZ ENTREGATZEARREN PUNTOAK KENDU ZAIZKIO.

# Jokoz kanpo



## Jose Ramon Etxeberria

### AMILOTX

#### ZER MODUZ HASI DUZUE TXAPELKETA?

Gaizki, partidu bakarra irabazi baitugu. Beste guztiak galdu egin ditugu.

#### ZERGATIK GALDU DITUZUE

#### HORRENBESTE PARTIDU?

Txarrak garelako.

#### ZUEN TALDEAN JOKATZEKO

#### LABEGARAIETAKOIA IZAN BEHAR DA?

Guztiok gara auzokoak, bat izan ezik kaletarra dena, baina Altos Hornosen egiten du lan.

#### ZER POSTUTAN ESPERO DUZUE

#### BUKATZEA?

Oraingoa ez da gure liga. Gurea hurrengo fasean hasten da.

#### ORAIN ARTE IKUSI DUZUN TALDERIK

#### ONENA?

Gure multzoan maila berdin samarrekoak gara talde guztiak. Ez nuke inor nabarmenduko

#### ZUEN TALDEKO JOKALARIRIK ONENA?

Alex Madariaga.

#### TXAPELKETAK AURTEN IZAN DITUEN

#### ALDAKETEKIN ADOS ZAUDE?

Lehenengo moduan hobeto zegoela uste dut.

#### ARBITRAIEKIN GUSTORA?

Bai, orain arte ez dugu arazorik izan.

#### MUNDIALA ZEINEK IRABAZIKO DU?

Brasiliek.

#### REALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Alberto.

#### UEFARAKO SAILKATUKO DA?

Bai.

### EMAITZAK

A ZE FLAXA ETXAGH-MONGATXURRAK	1-1
EZINLEIKE-MRW	4-3
BILDURBAREK OPEL/LAM-BAR CANALEJAS	2-1
ARLOTEAK/OILAGORRA-MONGATXURRAK	2-4
ERDIBITERRAK-JAKINA PT	3-5
AMILOTX-TXIPIRON	4-2
ERROTAGAIN-JAUJA OH ZREZOS	3-0

### PARTIDUAK

#### Zapatuan barruan

- 09:00: KAIXO-INDARGORRI • IGANDEKOAK
- 10:00: IGANDEKOAK-POLIDEPORTIVO TABERNA • SHAKTALE
- 11:00: SHAKTALE-AGIRREBEÑA JATETXEA • POLI. TABERNA
- 18:00: MOSKIS-GANBARA ARI ARI • EZINLEIKE
- 19:00: ALDOKA MALDOKA-EZINLEIKE • MRW
- 20:00: MANITOU-MRW • ALDOKA MALDOKA

#### Zapatuan kanpoan

- 16:00: BAYER-ARTUSAMAK • AMOZKIBAR
- 17:00: AMOZKIBAR-ERDIBITERRA • BAYER

#### Domekan barruan

- 09:00: UVE BIKOITZA-TXIPIRON • USOA
- 10:00: AMILOTX-USOA • AZPEITXI JATETXEA
- 11:00: ERROTAGAIN-AZPEITXI JATETXEA • AMILOTX
- 12:00: GUADALEST-ERI SIRIMIRI • FAC
- 13:00: FAC-UFALA • GUADALEST
- 16:00: PAGOMENDI-ORTZI • A ZE FLAXA ETXAGI
- 17:00: A ZE FLAXA-AGINASPI • JAUJA OH ZEREZOS
- 18:00: MONGATXURRAK-OH ZEREZOS • BAR CANALEJAS
- 19:00: ARLOTEAK/OILAGORRA-BAR CANALEJAS • ETXAGI
- 20:00: ETXAGI-BILDURBAREK OPEL/LAM • ARLOTEAK

#### Domekan kanpoan

- 16:00: MATXAKATEGI-BAR GANBARA • LA PEÑA DML
- 17:00: LA PEÑA DML-PATATUS • KOMANDO PIPERRAK
- 18:00: ETENGABE-KOMANDO PIPERRAK • JAKINA PT
- 19:00: JAKINA PT-SLO • ETENGABE

### ESKOLA KIROLA

#### Zapatuan Miguel Altuna berrian

- 11:00: MARIAREN LAGUNDIA-ARANZADI 203
- 12:00: ARANZADI 202-IPINTZA
- 12:00: LOS CHICOS DE ALTUNA-ARANZADI 201

## TXINPARTAK

## Nesken futbol taldea bikain

Joan zen domekan BKEko emakumezkoen taldeak 3 eta 1 irabazi zion Urolari. Bergarrek maila bikaina erakutsi zuten eta ordura arte partidurik galdu gabe zegoen Urolari errez irabazi zioten. Garaipenari esker bergarrek 3. postuan daude sailkatuta eta asteburu honetan bigarrenaren aurka jokatuko dute.


## Udaleko dirulaguntzak eskatzeko epea

Udalak kirol taldeei edo kirol ekitaldiak antolatzeko ematen dituen dirulaguntzak jasotzeko epea azaroaren 30ean bukatzen da. Laguntzak jaso ahal izateko klubaren edo antolatu nahi den kirol ekitaldiaren txostenak aurkeztu beharko dira Udal Kirol Zerbitzuan.

# Gimnasia erritmikokoak Estatuko txapelketara

**Ariznoa** gimnasia erritmiko taldeko junior taldea hirugarren postuan sailkatu zen joan zen domekan Labegarrietako kiroldegian jokatutako taldekako Euskadiko txapelketan. Bergarrek mazedekin egin zuten euren saioa eta Helena Herreros entrenatzaileak adierazi digunez, ez daude oso pozik egindako lanarekin. *"Taldekako saioak oso zailak dira guztien artean mugimenduak koordinatzea oso nekeza baita. Halere, domekan ez ginen oso fin ibili eta asko hobetu behar dugu. Gainera beste taldeetakoak nagusiagoak ziren eta esperientzia gehiago zuten eta hori igarri egiten da"*.

Ariznoa taldea Jaione Igartua, Ane Miren Fernandez, Amaia Torre, Aintzane Narvaez, Azahara Gonzalez eta Eneritz Olabariak osatzen dute. Kirol mailan postu onik lortu ez arren, Ariznoa elkarteak pozik daude domekan ikusleek eman-



Ariznoako gimnastak domekan kiroldegian jokatutako txapelketan.

dako erantzunarekin. *"Kiroldegia bete egin zen txapelketa ikusteko eta pozik gaude ikusleek emandako erantzunarekin"* dio Herrerosek.

## Estatuko txapelketa

Euskadiko txapelketan oso ondo ibili ez arren, kirolari gazteek maila ona erakutsi dute orain arte, eta datorren hil hasieran Sevillan jokatuko diren Estatuko txapelketarako

sailkatzea lortu dute. Aurretik Gasteizen izango den proban izango dira Ariznoako gimnastak. *"Gasteizko proba oso garrantzitsua da, bertako taldea Estatuko garrantzitsuenetakoa delako eta oso maila altua izaten delako. Espainiako txapelketa prestatzeko primeran etorriko zaigu. Txapelketa horretarako hiru aste falta dira eta espero dugu maila hobetzea"* esan digu Herrerosek.



## Mendiko materiala

Datorren astelehenean hasiko da Pol-Pol Mendizale Taldeak urtero antolatzen duen eski eta mendi materialaren azokarako material bilketa. Materiala astelehenetik ostiralera bitartean eraman beharko da arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara Pol-Poleko bulegoetara datorren abenduaren 4a baino lehen. Azoka abenduaren 9tik 14ra bitartean izango da zabalik eta bigarren eskuko mendi eta eski materiala erosteko aukera paregabea da.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Allerru

Lehen mailako jubenilak.

Zapatua. 15:30

Ipintza futbol zelaia.

## ◆ Bergara-Urola

Bigarren mailako jubenilak.

Zapatua. 17:15.

Ipintza futbol zelaia.

## ◆ Bergara-UDA

Bigarren mailako kadeteak.

Domeka. 10:15.

Ipintza futbol zelaia.

## ◆ Bergara-Aldapetarrak

Ohorezko mailako infantilak.

Domeka. 11:45.

Ipintza futbol zelaia.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Urola

Kadete neskek.

Zapatua. 16:30.

Labegaraieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Centro Mikeldi

Senior mutilak.

Zapatua. 19:00.

Labegaraieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Iraurgi

Junior neskek.

Zapatua. 17:30.

Mariaren lagundia.

## PILOTA

## ◆ Bergara-Oñati

Juniorrak banaka.

## ◆ Bergara-Segura

Seniorrak binaka.

Domeka. 10:30.

Udal Pilotalekua.

Gipuzkoako ligako

final laurdenak.

Legenago, kadete mailako

3 partidu jokatu dira.

## Iñaki Eraña

## Fondoko korrikalaria

**44 urte ditu eta orain dela 4 urte egin zuen lehenengo maratonia. Domekan Donostiako maratoino irteeran izango da, beste 12 bergararrekin batera, lasterketak dituen 42 kilometroak burutzeko asmoarekin.**

**- Zenbagarren maratonia izango da domekakoa?**

- Aurten laugarrena izango da. Joan zen urtean ez nuen bukatu, azkarregi hasi nintzen eta 30. kilometroan pot egin nuen.

**- Ez zara berandu hasi maratoinetan?**

- Ez, lehenengoa 26 urterekin saiatu nintzen korritzen; Donostiako maratoinaren lehenengo edizioa zen, baina lesio bategatik ezin izan nuen korritu. Halere, beti izan dut buruan maratoni bat egitea eta 40 urterekin egin nuen lehena. Gustatu egin zitzaidan eta orain oso gustora nabil.

**- Edozeinek egin dezake maratonia?**

- Egin edozeinek egin dezake. Gauza guztien moduan esfortzu handia eskatzen du eta urte guztian zehar zerbait egin beharra. Maratoinaren aurreko 10 asteetan prestakuntza espezifikoa egin behar da. Entrenamendua kontrolatu egin behar da, kilometrotan ez pasatzeko.

**- Zenbat entrenatzen duzu?**

- Orain, astero 100 kilometro egiten ditugu eta urtean 3.000 kilometro inguru egiten dira. Mara-

toirako kilometroak egitea da garrantzitsua, fondoa hartzeko.

**- Domekan zer eguraldi nahiko zenuke?**

- Fresko egitea nahiko nuke. Bestalde, garrantzitsua hego-haizea ez egotea da. Hego-haizeak sikatu egiten du eta izerdi asko botatzen da. Ondorioz, likido guztia galdu egiten da. Dena den, hego-haizea egin ez arren, ura ia postu guztietan edan behar da. Egardia datorrenean gero ezin da errekueratu.


**- Zer asmorekin zozaz maratoina?**

- Joan zen urtetik 2 ordu eta 45 minutuko den-

bora buruan daukat. Lehendik 2 ordu eta 47 minutuko denbora daukat eta uste dut gauza naizela hori hobetzeko. Halere, hori helburu bat jartzeagatik besterik ez da eta ez baldin badut egiten ez da ezer pasatzen. Gainera, aurtengo maratonia bukatzen badut, kuadrilako laguna zen Abdon Juaristiri eskeini nahi nioke.

**- Maratoinaren ondoren indarrak berreskuratzen zer egiten duzu?**

- Hurrengo egunean ere korrika egitera joaten naiz. Era berean, Maratonia bukatu ondoren oso garrantzitsua da luzaketak egitea.



Domekan hego-haizerik ez egitea espero du Erañak.

**“Astero 100 kilometro egiten ditut eta urtean 3.000 inguru”**




## Gau Txori kuadrila, 1971

7oko hamarkadako musika eta janzkerak gaur egun indarrean ei daude: Led Zeppelin, barren zabaleko prakak... Aste honetako argazkikoak kanpai itxurako barrenak dituzten prakekin jantzita ikusi ditzakegu, orduko moda.

Gau Txori kuadrilakoak dira, gaur egun 40 urte inguru dituztenak, eta mendian bueltatxo bat eman ondoren, Juvenen lehenengo "matxakatu" hartu eta plazarako bidean, Ugaldeko etxe aurrean argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. 17-18 urte inguko gazteak honako hauek dira, ezkerretik hasita:



Mitxel Zelaia, Enrike Jauregi "Riki", Aitor Azkarate "Phytor", Felix Maiztegi "Kaki", Ana Ilarduia, Marije Gisasola, Maika Mujika, Jesus Belategi "Bela" eta Migel Inclan "Kuxi".



### Pedro Sevillano

1997ko azaroaren 18an hil zen

Natalia zure alabaren lagunok  
beti izango zaitugu gogoan.



### Gabina Gauba

Azaroaren 10ean zendu zen Gabina Gaubaren  
senarrak, seme-alaba eta familiak  
esker ona adierazi nahi diete  
beraien laguntza eskaini duten denei.

Bergaran,  
1997ko azaroaren 21ean.



# Modelo berriak

Kalitate hobea preziorik onenean



Obraren proiektua eramaten dugu



Larunbat  
arratsaldeetan  
irekita

Ibargarai hiribidea 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 76 70 58

## LOGELETAN


espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5  
(ESKATU Pabiloia,  
San Andres auzoa)  
Tfnoa eta Faxa: 79 41 82  
ARRASATE

Larunbat  
arratsaldeetan  
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

## BENETAN HARRIGARRIA!!